# ARGITALPENA EGIAZTATZEKO ZERBITZUAREN BEZERO APLIKAZIOAREN ERABILTZAILEAREN ESKULIBURUA

**Izenpe**

# Edukia

1. Sarrera 3

**1.1 Helburua 3**

**1.2 Nori zuzendua 3**

2. Deskribapen orokorra 4

3. Argitalpena Jasota Uzteko Zerbitzuaren bezero- aplikazioa 5

**3.1 Aplikaziorako sarbidea 5**

**3.2 Argitaratze Konstantzian alta ematea 10**

# 1. Sarrera

## 1.1 Helburua

Eskuliburu honen helburua da Argitalpena Jasota Uzteko Zerbitzuaren bezero-aplikazioa nola erabili azaltzea.

## 1.2 Nori zuzendua

Eskuliburua Argitalpena Jasota Uzteko Zerbitzua erabili ahal izateko baimena duten erabiltzaileei zuzenduta dago.

# 2. Deskribapen orokorra

Argitalpena Jasota Uzteko Zerbitzuaren bezeroaren web-aplikazioa arduratzen da zerbitzura deitu ahal izateko eta lortutako emaitzak erakusteko beharrezko parametroak jasotzeaz. Aplikazio horretara sartu ahal izateko, erabiltzaileak Argitalpena Jasota Uzteko Zerbitzura sartzeko baimena ematen duen IZENPEk jaulkitako ziurtagiri bat aurkeztu beharko du.

# 3. Argitalpena Jasota Uzteko Zerbitzuaren bezero- aplikazioa

## 3.1 Aplikaziorako sarbidea

IZENPEren web-publikoaren bitartez sartuko da aplikazioan: http://www.izenpe.com.




Pantailaren ezkerraldean dagoen menuko ‘Produktu eta zerbitzuak’ aukera hautatu beharko da.




‘IZENPEren beste zerbitzu batzuk’ atalaren barruan ‘Argitalpena jasota uzteko zerbitzua’ aukera hautatu beharko da.




'Argitalpena egiaztatzeko zerbitzua' aukera hautatu beharko da eta aplikazioan sartuko da.



Une horretan aplikazioak Argitalpena Jasota Uzteko Zerbitzura zer ziurtagirirekin egiten zaion eskaera adieraztea eskatuko digu. Ziurtagiriak zerbitzuaz baliatu ahal izateko beharrezko baimena badu, hurrengo pantaila bistaratuko zaigu. Argitalpena Jasota Uzteko Zerbitzuaren administrazioaz arduratzen diren IZENPEren eragileek emango dute altan baimen hori.




Ziurtagiriak beharrezko baimenik ez badu, beste pantaila hau agertuko da.


SERVICIO NO DISPONIBLE - SERBITZUA EZ ONARTUTA - Microsoft Internet Explorer
Archivo Edición Ver Favoritos Herramientas Ayuda
Atrás
Búsqueda
Favoritos
Dirección
https://172.19.10.193:8445/cliente_constancia/jsp/errores/nopermiso.htm
Ir
Vínculos
izenpe
euskadi.net
NO TIENE PERMISO PARA ACCEDER AL SERVICIO.
SERBITZUA ERABILTZEKO PERMIZURIK EZ DITUZU.
© 2009 • Izenpe S.A.
Listo
Intranet local

## 3.2 Argitaratze Konstantzian alta ematea

Aplikaziora **3.1 atalean** adierazi den moduan sartu denean**,** Argitalpena Jasota Uzteko Zerbitzurako deia egin ahal izango da. Horretarako, aplikazio-formularioaren eremuen bidez sartuko dira beharrezko parametroen balioak. Ondoren, formularioak dituen eremuak deskribatuko dira.

- **Izenburua**: Argitalpena Jasota Uzteko Zerbitzuan alta ematean jartzen den izenburua, PDF formatuko egiaztatze-dokumentuan erakutsiko dena.

- **Argitalpenaren URLa**: argitalpena jasota utzi nahi denean, dokumentua argitaratuta dagoen helbidea adieraziko da.

- **Berrikustearen amaiera data**: aldian behin berrikusteko prozesua zein datatan amaitu nahi den adierazteko. Balio hori testu-eremuaren eskuinaldean dagoen ikonoaren bidez hautatu ahal izango da edo berrikuspen egun kopurua hautatuz. Ikono hori sakatuz gero, hurrengo leihoa azalduko da. Berrikustea zein egunetan amaituko den hautatuko da.




Formularioaren eremuetan balioak behar bezala sartu ondoren, “Bidali” botoia sakatuko da, eta Argitalpena Jasota Uzteko Zerbitzurako deia egiteaz eta lortutako emaitza erakusteaz arduratuko da. Deia behar bezala eginez gero, honako pantaila bistaratuko da.




Argitalpena Jasota Uzteko Zerbitzurako deiaren emaitza zuzena, aurreko pantailan ikus daitekeen bezalaxe, esteka (link) bat da. Esteka horren bitartez deskargatu ahal izango da Argitalpena Jasota Uzteko Zerbitzuak sortzen duen egiaztatze-dokumentua.




Esteka hori sakatzean, dokumentua bistaratzeko aukera edo aplikazioa exekutatzen ari den marinaren artxibo-sistemara deskargatzeko aukera eskainiko digun leihoa zabalduko da.



Hautatu den dokumentoa okerra izanez gero hurrengo pantaila agertuko da.

